

Paulina Zabala
Gatika, Bizkaia

Aurkibidea

Biografia

Gatikarra. 1985eko uztailan egin zitzaion elkarrizketa hau HABEko "Alfabetatzerako Langaia. Bizkaieratik Baturantz" liburuaren prestaketarako.

Zintak

GAT-001

- **Proiektua:** Alfabetatzerako Langaia. Bizkaieratik Baturantz
- **Elkarrizketatzailea(k):** Amilategi, Kruz - Elordui, Aintzane
- **Data:** 1985-07-01
- **Iraupena:** 2 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Emalea:** Aita Villasante Euskaltegia, Gernika-Lumoko

GAT-002

- **Proiektua:** Alfabetatzerako Langaia. Bizkaieratik Baturantz
- **Elkarrizketatzailea(k):** Amilategi, Kruz - Elordui, Aintzane

- **Data:** 1985-07-01
- **Iraupena:** 2 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Transkribatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Emalea:** Aita Villasante Euskaltegia, Gernika-Lumoko

Pasarteak

1. Piperra eta tomatea landatzen

- **Erref:** GAT-001/001
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Piperra eta tomatea landatzeko eman behar diren pausoak azaltzen ditu.

Transkripzioa

Bai, lurreri in ber dako lenengo labra eta gero apurtu eta gero piperrak imiñtteko ba..., sotok iñ, satza iñ eta gero piperrak imiñi, eta gero piperrari satza tapa, ure iñ ta tapa ta ba... alan segidu yorratuten-ta, ta ba gero ba... esebes, gero urrengon ba...andi itten danen batu piperrak, ta ba eskei edo saldu edo yan-edo.

Bai yorratu piperra, lurre batu piperrari on daitten, eta gero eseberes, eurek emon arte frutue eseberes geiau. Urek koran ba, eskei edo itteko siketu itteko, batu ta plasarako esteko lebarik, yateko baya... orretarako ba urek berean, menguantean ba batu ta eskei. Tomate bere, labrau ta gero imiñi lurre ondo eta bota satza eta iñ txorkoak eta gero satzagas imiñi landare, ta landare imiñi rte bota ure eta tapa eta gero ostabere yorratu, ta ba... palutan imiñi amarrata ta ba botikegas-ta kontzerba ber, eta gero batzen danen ba ak esteko menguante serik seuk gurusunen. Eltzen danen yan ta nai batu ta saldu nai jenero. Esteko pegarík.

2. "Jaungoikoa" eta "Jaungoikotxu"

- **Erref:** GAT-002/001
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Herriko familia bati buruz dihardu berbetan. "Jangoiko" deitzen zioten gizon bati eta "Jangoikotxu" haren semeari, baina ezizen hori galdu da jada.

Transkripzioa

Bai, hemen egon zan gizon bat ba lelau "jangoiko" esaten otsena eta gero ba "jangoiku" eta "jangoiku" eta gero ba familie euki eben eta alabak

hainbet, baia semerik bat baiño ez, eta gero beste seme bakarrari “jangoikotxu” esaten otsen, ta ointxe ba hil da larogeta zazpi urtegaz hil da, eta ba oin a esan deu jenteak jangoikoa nork administratuko ete dauen akaba dala jangoiku ta. Oin semek asko euki dittuz, baia ba oin jangokotxurik ezin imiñi bateri ba, bat baiño ez ta, asko dire-ta, noreri imiñiko jako oin jangoikotxu, ba? inori ere ez. Bai, semek bere bai alabak bere bai badekoz, baiña oin ya ba horrek akaba dire, jangoikotxu akaba da. A bai, ba hori, horrek dekoz oin familiek ba, lehen bere izen dire horrek, batzuk izen dire zerak baiña horrek lehengoak rubiak izan dire lehengo familin danak rubiak majok, eta oin ama izen dalez morenea amatatik doaz, aman antzekok doaz, baiña majuk eta majak, baiña familie oin direz klase bittekuk: batzuk direz rubioak eta beste batzuk dire morenoak, baiña danak majuk.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-12

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com